



**25/2003 GOMENDIOA, URRIAREN 17KOA, EUSKO JAURLARITZAREN JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILARI EGINA, LEGE-HAUSTE LARRIAGATIK ZIGOR ESPEDIENTE BAT HAS DEZAN VITALPENSIÓN BORONDATEZKO GIZARTE AURREIKUSPENERAKO ERAKUNDEAREN (BGAE) KONTRA. IZAN ERE, BAZKIDE BATEN JABETZAKO ESKUBIDE METATUAK LEKUZ ALDATZERAKOAN, ERAKUNDE HORREK EZ DU BETE LEGEAN EZARRITAKO EPEA.**

### **Aurrekariak**

1. Gure esku-hartzea eskatu zuen herritar baten kexa-idazkia jaso genuen erakunde honetan. Izan ere, hilabete batzuk lehenago, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari idatzi zion bi bider, bere eskubide metatuak beste erakunde batera aldatzeko eragiketa gauzatzerakoan Vitalpensión BGAEk burutu zituen jarduerak salatzeko, baina sail horrek ez zion erantzun.
2. Bi gai zehatzekin ez zegoen ados kexagilea. Alde batetik, bidegabea iruditzen zitzaion Vitalpensión erakundeak aldaketa hori egiteagatik kobratu zion % 2ko komisioa, eta, bestetik, erakunde horrek eragiketa gauzatzeko zuen 30 eguneko epea ez zuela bete salatu zuen, bada eskaera 2002ko urtarrilaren 2an erregistratu zen, eta lekualdatzea ez zen martxoaren 7a arte egin. Arrazoi horiengatik, interesdunak Eusko Jaurlaritzara jo eta beharrezko neurri zuzentzaileak har zitezela eskatu zuen, Vitalpensión-ek bere jokaera zuzendu eta kobratutako komisioa itzul ziezaion.
3. Interesdunak eskatutako berariazko erantzuna iristen ez zela-eta, lehen idazkia bidali genion sail horri, eta lehenbailehen erabaki bat hartu eta interesdunari jakinaraz ziezaiola eskatu genion, horrela beteko baitziren administrazioaren jardunbidea arautzen duen legerian ezarritako betebeharrak. Halaber, jarduera horien kopia bat igortzeko eskatu genion, oinarritzko ikuspegitik legeriaren araberakoak ziren ala ez aztertzeko.
4. Eskaera hori egin ondoren, sail arduradunak berariaz erantzun zion interesdunaren kexari, baina ez zion heldu gaiaren mamiaiari. Horrela, komisioaren zenbatekoari buruz, zirkular bat onartu zela adierazi zuen, eta zirkular horrek % 0,3ra mugatu zuela lekualdatzeetan ezarri beharreko komisioa, baina, egiaz, azaldutako kasu horretan ez zuela eraginik, zirkular hori lekualdatzea gauzatu ondoren jarri zelako indarrean. Bestalde, lekualdatzeei eta komisioei dagokienez, lege-haustek gertatzen zirela onartu zuen sail horrek, baina gertakari horri ez zion garrantzi handirik eman. Hauxe



adierazi zuen hitzez hitz: "*...se ha apercebido a todas aquellas EPSV que antes de la citada Circular y actualmente no cumplen con los requisitos para trasposos de derechos consolidados*".

5. Erakunde honek kolokan jarri zuen azaldutako jarduerak legezkoak ote ziren, BGAEak arautzen dituen legean ezarritako xedapenekin kontrastatu ondoren; lege horrek administrazioari ematen dio erakunde haien jarduera ikuskatzeko ardura, bazkideen eskubideak zaindu eta aurreikuspeneko erakundeek egin ditzaketen gehiegikeriak saihestu daitezten.

Eskema horri jarraiki, kolokan jarri genuen administrazioaren jokaera kasu honetan, izan ere, gure ustez, aztertutako agiriek berez erakusten zuen sail arduradunak ez zuela ikuskatze-lanik egin, baizik eta baliozkotasun osoa eman ziola Vitalpensión-ek gai horretaz eman zuen azalpenari, bere aldetik inolako egiaztapenik egin gabe. Legea betetzen ez duten erakundeei ustez bidalitako ohararazpenei buruz, zalantzan jarri genuen horiek bidezkoak ote diren, jarduera horiek ezarrita dagoen zigor-prozeduratik kanpokoak baitira, eta, beraz, ez baitute legearen babesik. Orobat, zigor-araudia zorrozki ezarri beharra dagoela azpimarratu genuen, gaiarekin zerikusia zuten alde guztien eskubideak bermatzeko.

6. Guk kontrako arrazoi horiek azaldu arren, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak bere iritzia eutsi zion, hau da, Vitalpensión-ek kasu honetan zuzen jokatu zuela esaten jarraitu zuen.

Zehazki, sail horrek zuzentzat jotzen du aplikatu zen % 2ko komisioa, Vitalpensión-en Gobernu Batzordeak erabaki bat onartu baitzuen 2001eko abenduaren 28an.

Legeak ezarritako epea ez betetzeari dagokionez, kexagilea Errenta Finkoaren Norbanakoaren Aurreikuspen Planaren bazkide zen, eta plan horri buruzko Vitalpensión-en Araudiak, 7. artikuluan, 30 eguneko epea ezartzen du. Sail horrek hori onartzen du, baina kasu honetan sortutako atzerapena interesdunari egotz dakiokeela adierazten du. Ildo horretan, txostena zeharo argia da, hauxe dio eta: "*...ez da egokia Euskal Autonomia Erkidegoko Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakundeei aplikatu beharreko arauak aplikatzea, are gehiago erakundea bazkidea eskatzen ari zen dokumentazio osagarria 2002ko martxoaren 1a arte entregatzen aritu zela kontuan hartuta.*" (sic)



## Gogoetak

1. Borondatezko Gizarte Aurreikuspenerako Erakundeak arautzen dituen 25/1983 Legeak hauxe adierazten du hitzez hitz zioen adierazpenean:

*"Pero si necesario es alentar la libre actuación y desarrollo de estas Entidades, es fundamental garantizar y proteger los derechos de sus asociados, y en particular los derechos pasivos de los mismos, por ello se organiza la necesaria estructura administrativa que desarrolla funciones de intervención y control necesarias en cualquier actividad de la Administración".*

Artikulukako testuan, IV. kapitulua administrazioak BGAEak ikuskatzeari buruzkoa da. 18. artikulua Osasun eta Gizarte Segurantzaren Sailari esleitzen dio eginkizun hori, eta 20. artikulua gai horretan parte hartzeko aukera ematen die bazkideei, honela hain zuzen:

*"Los asociados podrán comunicar al Departamento de Sanidad y Seguridad Social, a efectos de sanción administrativa y adopción de las medidas pertinentes, las prácticas contrarias a la Ley o que afecten a sus derechos o al prestigio de la Entidad de Previsión Social Voluntaria."*

Gaur egun, eskumen hori bere gain hartua dauka Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak. Orduan, transkribatu ditugun lege-zatiak sail horri eginak direla ulertu behar da.

2. Normala denez, BGAEak arautzen dituen legeriak beharrezko tresnak eman dizkio administrazioari, esleitu dion ikuskatze-lana modu eraginkorrean bete dezan. Horrela, aipatu legearen 23. artikulua lege-haustea honela sailkatzen ditu, garrantziaren arabera: oso larriak, larriak eta arinak. Aztertzen ari garen kasuarekin duen loturagatik, azpimarratu nahi dugu xedapen horrek berak lege-hauste arintzat jotzen dituela, betebeharrak formalak betetzerakoan, atzerapen hutsak edo funtsezko arauen garrantzi gutxiko ez betetzeak eragiten dituzten egintzak. Era berean, zera ezartzen du: lege-hauste larritzat joko direla betebeharrak formalak edo funtsezko arauak ez betetzea eragiten dutenak, baldin eta ekintza eta gauzatze horrek bazkideen edo erakundearen interesak arrisku larrian jartzen baditu. Azkenik, 25/1983 Legea garatzen duen Araudiaren 64. artikulua lege-hauste oso larrien artean sailkatzen du, besteak beste, honako hau: *"el incumplimiento por parte de la Entidad de las normas estatutarias y que cause perjuicios a los asociados."*



Araudi beraren 65. artikulua, berriz, zer-nolako zigorrak ezarri behar diren zehazten du, lege-haustea arina, larria edo oso larria den kontuan izanik.

Bukatzeko, Araudiaren 67. artikulua agintzen duenez, dagokion zigor-espedita bideratzean, autonomia erkidegoan une bakoitzean indarrean dagoen prozedura erabiliko da; gaur egun, otsailaren 20ko 2/1998 Legean xedatutakoa da.

3. Araudi hori ikusita, honela baloratu dugu administrazioak eman digun erantzuna:

**2 %ko komisioa:** ez dugu zalantzan jartzen Vitalpensión-en jardura legekoa dela, komisio hori onartu zuen erabakiaren iraunaldiaren ikuspuntutik. Hala ere, gure iritzian, bazkide horren salaketak erabakiaren beste alderdi batzuk legekoak ote ziren ikertzeraz bultzatu behar zuen administrazioa, alderdi horiek ere garrantzitsuak baitira, esaterako, igoera bera (% 100ekoa), komisioa agian gehiegizkoa izatea (% 2koa), erabakiari bazkideen artean eman zitzaion publizitatea, bai haren edukiari buruz, bai indarrean jarriko zen egunari buruz...

Horrela, gure ustez, administrazioak gai horren gainean burutu duen ikuskatze-lana ez da behar bezalakoa izan.

**Lekualdatzea gauzatzeko epea:** Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak bere egin ditu Vitalpensión-ek emandako datuak, atzerapena bazkideak berak eragin zuela argudiatzeko, eta, hartara, Vitalpensión erantzukizunetik libre uzteko. Gure ustez, ordea, datu horiek kontrako ondorioa aterarazten dute, ezinbestean.

Ildo horretan, ezin dugu onartu interesdunari trabak jarri dituela leporatzea, are gutxiago mutur horretara eramanda, alegia, Vitalpensión-i bere jardueran bete behar dituen legeko epeak betetzea eragotzi dion oztopatze gisa ulertuta.

Lehenik, interesdunari eman dizkioten agiriak oinarritzekoak direlako, hau da, gatazkaren edukiarekin lotura estua dutelako (BGA Eren estatutuen kopia, bazkidearen Errenta Finkoaren Planari buruzko Araudiaren kopia, eta Gobernu Batzordeak 2001-12-28an egindako bileraren aktaren ziurtagiria); horregatik, interesdunak eskubide eztabaidaezin bat gauzatu besterik ez duela egin esan



dezakegu: Vitalpensión-i eskatu zion egiazta zezala bere nahiak bazutela legearen babesa.

Bigarrenik, sail horrek paratutako txostenean islatzen den jarraikortasun ideia - hala informazio eskaeran nola informazioa eskuratzean- berez desegiten delako, honako hau egiaztatzen denean: erakunde horrek zeuzkan 30 egunetatik 21 behar izan zituen bazkidearekin lehen aldiz harremanetan jartzeko, hari komisioa zenbatekoa izango zen jakinarazte aldera.

Hirugarrenik, eskatutako agiriak kexagileari emateko erakunde horrek erabili zuen denbora, argi eta garbi, itxuragabea delako, izan ere, ikusi dugunez, oinarrizko informazioa zen, eta eskaera baino lehen eta eskaeratik aparte izan behar dena; horregatik, bazkideek eskura izan beharko lukete une orotan.

Amaitzeko, laugarrenik, araudiak ez duelako jartzen honelako edo halako gorabeherarik ez izatearen baldintzapean 30 eguneko epea betetzea. Azken batean, informazioa jasotzeko eskubidea gauzatzeak ezin du, gure ustez, beste ezein eskubide murriztu, eta, zehazki, ez du inolaz ere moteltzen informazioa eman behar duenak legezko epeak betetzeko duen obligazioa. Kasu bakar batean geratuko zen erakunde hori lekualdatzea gauzatzeko epea betetzeko obligaziotik aske: bazkideak idatziz eskatu balu lekualdatzea bertan behera utz zedila, ezarri beharreko komisioaren kontua argitu artean. Alabaina, aztertzen ari garen kasuan ez da halakorik gertatu.

Azaldutako arrazoiengatik, gure aburuz, kasu honetan, Vitalpensión BGAE jo behar da (...) jaunaren eskubide metatuak lekuz aldatzerakoan legezko epea ez betetzearen erantzule, horren berekin dakartzan ondorioekin.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak - erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

**25/2003 GOMENDIOA, urriaren 17koa, Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailari egina**

Lege-hauste larriagatik, zigor espediente bat has dezala Vitalpensión BGAEren kontra, erakunde horrek ez baitu bete (...) jaunak 2002ko urtarrilean egindako eskaera -bere eskubide metatuak lekuz aldatzea-gauzatzeko zuen epea.